

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

USURBILGO UDALA

Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko dirulaguntzak.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak 2022ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, segidan jasotzen den ebazpen-proposamena egin du, Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2022. urteko dirulaguntzen inguruan.

Interesatuak, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita 10 eguneko epea dute, ebazpen-proposamen honi alegazioak aurkezteko beharrezko ikusten badute.

Usurbil, 2022ko ekainaren 16a.—Agurtzane Solaberrieta Mesa, alkatea. (4206)

EBAZPEN PROPOSAMENA

IKUSIRIK

2022ko martxoaren 8an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2022. urteko dirulaguntzak eskatzeko deialdia argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko hogeitaneguneko epea izan zuten interesdunek. Hala, eskaerak aurkezteko epea 2022ko apirilaren 5ean amaitu zen.

Epe horretan ez da eskaerarik aurkeztu.

ETA KONTUAN HARTURIK

— Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituenak.

— Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2008-07-01).

— Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA 2020-01-30).

— Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2021. urteko dirulaguntzen oinarriak (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2022-03-08).

Guzti hau kontuan izanik, 2022ko ekainaren 15ean egindako Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak ebazpen proposamen hau egiten dio alkate-lehendakariari:

Lehenengoa: Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2022. urteko dirulaguntzen espedientea amaitutzat ematea.

Bigarrena: Ebazpen proposamena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da eta interesatuak alegazioak aurkezteko 10 eguneko epea izango du Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena: Aipatutako epean alegaziorik ez balitz aurkeztuko, Tokiko Gobernu Batzarrak dagokion erabakia hartuko du.

Laugarrena: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

AYUNTAMIENTO DE USURBIL

Ayudas económicas para atender a familiares de personas en riesgo de desarraigo y exclusión social.

La Comisión General de Subvenciones en sesión celebrada el 15 de junio de 2022, ha emitido la propuesta de resolución que se adjunta a continuación, en relación con las Ayudas económicas para atender a familiares de personas en riesgo de desarraigo y exclusión social.

Las personas interesadas dispondrán de un plazo de 10 días a contar desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa para presentar las alegaciones que estimen oportunas ante esta propuesta de resolución.

Usurbil, a 16 de junio de 2022.—La alcaldesa, Agurtzane Solaberrieta Mesa. (4206)

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

ANTECEDENTES

El 8 de marzo de 2022 se publicaron en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa las bases que regulan las Ayudas económicas para atender a familiares de personas en riesgo de desarraigo y exclusión social, concediéndose un plazo de veinte días hábiles para presentar las solicitudes. Es decir, las solicitudes debían ser presentadas antes del día 5 de abril de 2022.

En dicho plazo no se ha presentado ninguna solicitud.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

— Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— Ordenanza municipal reguladora de las subvenciones (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 01/07/2008).

— Plan estratégico de subvenciones 2020-2022 del Ayuntamiento de Usurbil (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 30/01/2020).

— Bases que regulan las ayudas económicas para atender a familiares de personas en riesgo de desarraigo y exclusión social (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 08/03/2022).

La Comisión General de Subvenciones, en la reunión celebrada el día 15 de junio, emite la siguiente Propuesta de resolución a la Alcaldía-presidencia:

Primero: Dar por finalizado el expediente de ayudas para atender a familiares de personas en riesgo de desarraigo y exclusión social correspondiente al año 2022.

Segundo: La propuesta de resolución será publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y las personas interesadas dispondrán de un plazo de 10 días a contar desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa para presentar las alegaciones que estimen oportunas.

Tercero: Si en el plazo señalado no se presentaran alegaciones, la Junta de Gobierno Local adoptará el acuerdo correspondiente.

Cuarto: en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web www.usurbil.eus también se dará cuenta de la propuesta provisional y de la resolución definitiva.